

GRADU AMAIERAKO LANA

2015-2016 IKASTURTEA

GERRA OSTEKO ESPEKULAZIOA,
BURTSAKO KRAXA ETA DEPRESIO
HANDIA AMERIKAKO ESTATU
BATUETAN, 1920-1939

Paul Balda Odriozola

Gradua: Historia

Tutorea: Xabier Lamikiz Gorostiaga

Saila: Ekonomia Historia eta Ekonomia Erakundeak

Lanaren laburpena

Lehen Mundu Gerraren amaierak aldi berri baten hasiera ekarri zuen Estatu Batuetara. 1920. urteaz geroztik Estatu Batuen hegemonia mundiala bermaturik geratu ziren, bai ekonomia bai politika alorrean. Estatus honi ohore eginez, hamarkada osoan zehar loraldi ekonomikoko garai bat bizi izan zen, itzal moduan nekazaritza sektorearen ahultasuna eman zelarik.

Susperraldi ekonomiko honekin batera New Yorkeko burtsa merkatuak ere hazkunde nabari bat jasan zuen. Gorakada hori ekonomiaren hazkundearekin bat eman zen hasieran, baina ondoren sukar espekulatibo batek kutsatu zuen merkatua. Akzioen prezioek etengabeko igoerak bizi izan zituzten hamarkada amaiera arte, ekonomiaren egoera onarekin inolako zer ikusirik izan gabe. Mota guztietako pertsonak bildu ziren merkatu gorakor hartan, gehienak maileguen bitartez jarduten zutelarik. Azkenean, burbuila espekulatibo horrek 1929ko urrian eztanda egin zuen akzioen prezioak izugarri eroraraziz, 29ko Kraxa delakoa sortuz. Galera ekonomiko izugarriak eman ziren bat-batean, jendeak burtsa merkatuaren errealitatea ikusi zuelarik.

Burtsaren gainbeherak herrialdeko egoera ekonomikoa hankaz gora jarri zuen hamarkada luze batez. Burtsarako emandako maileguak ezin izan ziren ordaindu eta hortaz banka eta finantza sistemaren porrota eman ziren. Bankaren gainbeherak gainontzeko sektore ekonomikoak kaltetu zituen, bereziki jada erortzen hasia zen produkzio industrialia. Denbora oso gutxian enpresa askok itxi eta langabezia tasek izugarri egin zuten gora, %20-25 inguruko datuetaraino. Aspalditik zetorren nekazaritzaren gainbeherarekin batera, faktore guzti hauek 1933an Depresio Handia izeneko krisia sortu zuten.

Krisi gogorra izan zen, langabezia eta pobrezia kopuru oso handiekin, eta gutxienez Bigarren Mundu Gerraren hasiera arte iraun zuen. Krisitik ateratzeko garaiko presidenteez, Hoover eta Roosevelt-ek, lehen aldiz estatu interbentzioa erabili zuten. Ekonomia kontrolatzeko hainbat erakunde sortu ziren eta estatuak gastu publiko itzela burutu zuen. Ekonomiaren suspertzea eta langabeziarekin amaitzea izan ziren helburu nagusiak, tamalez lortu ez zirenak. Hala ere aurrerapen nabariak lortu ziren beste sektore batzuetan. Estatuak, egoera larrian zeuden biztanleei eta langabeei laguntza ekonomikoa eskaini zizkien, eta langileei sindikaltzeko eta jubilatzekeo eskubidea onartu zitzaizen. Funtsean gizarte segurantza moduko bat ezarri zen Estatu Batuetan.

AURKIBIDEA

1) SARRERA

2) GERRA OSTEKO EKONOMIA ETA ESPEKULAZIOA, 1920-1928

2.1) Kultura espekulatzaileraren sorrera

2.2) Burtsa espekulazioa

2.3) Espekulazioaren bultzatzaileak eta erantzuleak

3) 1929KO KRAXA ETA HAREN EPE LABURREKO ONDORIOAK

4) DEPRESIO HANDIAREN ERAGINAK ETA KRISIARI EMANDAKO IRTENBIDEA

4.1) Atzeraldi ekonomikoa eta Hoover administrazioa

4.2) Lehen New Deal-a (1933-1935)

4.3) Bigarren New Deal-a (1935-1938)

5) ONDORIOAK

6) BIBLIOGRAFIA

1) SARRERA

Lan honetan zehar 1929ko Kraxa eta 1930eko hamarkadan gertaturiko Depresio Handia aztertuko ditugu, baita krisia gailentzeko Washington-eko gobernuak harturiko neurri interbentzionistenak ere. Garrantzitsuak iruditu zaizkigun zenbait galdera erantzuten saiatuko gara, sistema kapitalistak inoiz ezagutu duen beheraldi sakonena hobe ezagutzeko asmoz; besteak beste: Nor atera zen galtzaile eta nor irabazle burtsaren gainbeherarekin? Zein izan ziren Kraxaren erantzuleak? Nola sortu zen Depresio Handia? Krisi ekonomikoari aurre egiteko zer neurri hartu zituzten Hoover eta Roosevelt presidentetek, eta neurriok eraginkorrak izan ahal ziren?

Lanaren lehen atalean, krisiaren aurrekariak ezagutzeko, burtsaren gainbeheraren aurretik sorturiko fenomeno espekulatiboa aztertuko dugu, haren kausa eta erantzuleei arreta berezia ipiniz. Ondoren, Kraxaren nondik norakoak aztertuko ditugu eta baita epe laburrean izan zituen ondorioak ere. Jarraian, Depresio Handiak sorturiko egoerari buruz eta Herbert Hoover presidentek (pr. 1929-1933) harturiko neurrien inguruan hitz egingo dugu. Laugarren atalean, Franklin Delano Roosevelt presidentek (pr. 1933-1945) ezarritako *New Deal* plan ekonomikoa aztertuko dugu, azkenik ondorio orokor batzuekin amaitzeko.

Lehen Mundu Gerra ostean Amerikako Estatu Batuak munduko lehen potentzia ekonomikoa bilakatu ziren, Europako potentzia indartsuenak, Alemania eta Britainia Handia, oso ahuldurik geratu baitziren. Gudaren amaierak oparotasun ekonomikoko aldi berri bat ekarri zuen, 1920ko hamarkada amaiera arte iraungo zuena. Hazkunde hori bigarren industri iraultzak sorturiko hobekuntzek eta ekonomian emandako eraldaketek eragin zuten hein handi batean. Hobekuntza teknologiko hauek eta industria produkzio egitura berriek, hala nola fordismoa, produktu industrialen prezioen beherakada ahalbidetu zuten. Honek produktu hauekiko eskariaren areagotzea ekarri zuen, garaiko berrikuntza teknologikoak gizartetik hedatuz (autoa, irratia, hozkailua eta abar). Orokorrean ekonomiaren sektore gehienetan ikusi zen oparoaldia, hala nola garraioetan, azpiegituren hedakuntzan, auto kopuruaren handitzean, edo eraikuntzan (gogora dezagun garai honetakoak direla AEB-tako hirietako *skyscrapers* edo etxe orratzak). Nekazaritzak ordea geldialdi garai bat jasan zuen guda amaierak sorturiko eskariaren beherakadak prezioak kaltetu zituenean.

Loraldi orokor hau ikusita, hainbat enpresek euren etekinak areagotzeko aukera ikusi zuten, eta beren egitasmoa burutzeko New Yorkeko burtsara jo zuten. 1924 urteaz

geroztik, amerikar ekonomiaren susperraldiarekin batera, burtsaren indizeek gora egin zuten ia etenik gabe, baita haren inguruan jardun zuen sukar espekulatiboak ere. Enpresa handiek bertan saldu zituzten euren akzioak, denborak aurrera egin ahala balio gehiago lortzen zituztenak. Enpresa pribatuez gain bankuek ere parte hartu zuten jokoan, batetik euren bezeroei burtsan akzioak erosteko maileguak utziz (bezeroei utzitako maileguen interesa %12koa izan ohi zen, bankuei Erreserba Federalak dirua %5ean uzten zien bitartean), eta bestetik joko espekulatiboan zuzenean murgilduz, horretarako inbertsio funtsak sortuz. Banku komertzialek legalki ezin zezaketenez burtsan inbertitu, inbertsio funtsak sortu zituzten, espekulaziora bideraturiko bankuen filial batzuk.

Aipatzekoa da jende arruntaren artean ere burtsan parte hartzeko "moda" sortu zela. Denbora oso gutxian eta ustezko arriskurik gabe etekinak lortzeko helburuarekin, maileguak eskatzen hasi ziren akzioak erosi ahal izateko, nahiz eta askok burtsari buruz ezer gutxi jakin. Erosketa burutzeko akzioaren prezio errealaren zati bat soilik ordaindu behar zuten (ingelesez "buying on margin" deritzan eragiketa) eta gainerakoa bankuek edo bitartekariak (hots, *broker*-ek) uzten zieten maileguekin.

Mugimendu espekulatiboak eztanda egin zuen 1929ko urriaren 24an, hain famatua den 1929ko Kraxa sortuz. Burtsaren gainbeherak eta beste hainbat faktorek, besteak beste produkzio industrialaren geldialdiak, finantza sistemaren apurketak, merkataritza harreman internazionalen eteteak eta hamarkada hasieratik kalteturik zegoen nekazaritza sektorearen egoerak, Depresio Handia izeneko krisi garaia sortu zuten.

Depresio Handia kapitalismoak inoiz bizi izan duen krisi latzena kontsideratzen da, iraun zuen denboragatik eta, bereziki, eragindako kalte sakonengatik. Krisitik ateratzeko politika ekonomiko guztiz berriak erabili ziren, tradizio ekonomiko klasikoaren aurka zihoazenak. Haien oinarria estatuaren interbentzionismoa eta gastu publikoaren areagotzea izan ziren ekonomiaren oinarri sendoak ezartzeko eta langabezia tasa handiekin amaitzeko.

2) GERRA OSTEKO EKONOMIA ETA ESPEKULAZIOA, 1920-1928

2.1) KULTURA ESPEKULATZAILEAREN SORRERA

1920ko hamarkadan Estatu Batuak astindu zituen olatu espekulatiboak guda garaian izan zuen bere sorrera. Lehen Mundu Gerraren urteetan estatuak *Liberty bond* delakoak (*war bonds* ere deituak) plazaratu zituen, zeinak gerra ahalegina finantzatzeko sortuak izan baitziren. Izan ere, gerran zehar Washington-eko gobernuak bonu hauek salduz gudarako finantziario bizkor bat lortu zuen. Bonuek nahiko arrakasta izan zuten jende arruntarengan, hein handi batean haien inguruan estatuak eta bereziki pertsonai publikoek buruturiko publizitate kanpainari esker. Charles Chaplin eta Douglas Fairbanks bezalako aktore famatuak gerra bonuen aldeko kanpaina egin zuten, adibidez New Yorkeko kaleetan zehar bonuen salmenta bultzatzeko antolatutako ekintzetan parte hartuz. Nahiz eta *Liberty bonds* delakoen salmentak arrakasta handia izan zuen, ez dugu pentsatu behar gehiegizko espekulazioa sustatu zutenik, baina hurrengo urteetan emandako sukar espekulatzaileraren susturriak jarri zituen.


Wall Street-eko bankariak gerrako bonuen inguruan sortutako kulturaz baliatu eta gerraostean enpresa pribatuen akzioak biztanleei saltzen hasi zitzaizkien, nahiz eta akzioak, estatu bonuak ez bezala, guztiz fidagarriak ez izan. Urte hauetan hedaturiko epeka egin beharreko ordainketek garrantzi handia izan zuten sorturiko fenomeno espekulatiboari begira. Kontsumo ondasun iraunkorren merkatuan garatu zen bereziki ordainketa mota hau, bertako prezioak nahiko altuak kontsidera daitezkeelako bat-bateko erosketa batentzat. Hurrengo urteetan fenomeno hau burtsan emango zen, akzioen prezio errealaren zati bat soilik ordainduta eta gainontzekoa maileguen bitartez erosten zelarik.

Esan beharra dago, aurrerapen teknologikoek ere paper garrantzitsua jokatu zutela kultura espekulatibo honen eraketan. Asmakuntza berriek, telefonoak, telegrafoak eta bereziki irratiak, informazioaren hedapena izugarri erraztu zuten, masa komunikazioaren sorrera emanez. Hedabide hauen bitartez burtsako baloreak ezagutarazten ziren, mundu guztiak edonondik ezagutu zitzakeelarik. Gainera, *ticker tape* izeneko komunikabideak telegrafo sistemen bitartez enpresen akzioen balioak ezagutzea ahalbidetzen zuen, edonork burtsan egon beharrik gabe ia zuzenean jarrai zezakeelarik merkatuaren nondik norakoa.

Aztertu beharra dago garaiko espekulazio sukarraren inguruan hedaturik dagoen ideia bat. Nahiko onarturik dago, garai hartan estatu batuarren gehiengoa murgildu zela burtsa merkatuan, eta horietako guztiek parte hartu zutela negozio espekulatiboan. Burtsaren erorketa pasata zenbait urtetara, 1934ean hain zuen, Estatu Batetako Senatuak buruturiko ikerketa baten arabera, 1929an 1,5 milioi biztanlek parte hartu zuten burtsan akzioak erosiz. Orduko populazioa 120 milioi lagunek osatzen zuten, beraz burtsan soilik populazioaren %1 inguruk parte hartu zuen. Nahiz eta guztiak espekulatzailerik kontsidera ditzakegun, ez zuten denek maileguen bitartez parte hartu merkatuan. 1,5 milioitik, 600.000k epeko operazioen bitartez jardun zuten eta 900.000k eskura ordainduta. Hortaz denak ez ziren ondoren sorturiko finantza sistemaren gainbeheraren erantzule izan. Ondoriozta dezakegu erantzuleak milioia baino gutxiago direla kontuan izanda gehienek epeka ordaintzen zuela (Galbraith, 2009: 96-97).

2.2) BURTSA ESPEKULAZIOA

New Yorkeko burtsa espekulazioaren fenomenoan murgilduz, aipatzekoa da hamarkadaren lehen urteetan behintzat burtsaren igoera guztiz justifikaturik zegoela, produkzio mailekin konparatzen badugu. New Yorkeko balore industrialak aztertzen baditugu, 1924 urteaz geroztik goranzko joera hartu zuten (balioak indize zenbakitan daude, 1923-1925=100): 1924ko maiatzean 106koa zen bere balioa eta urte amaieran 134koa; urtebete beranduago 1925eko abenduan 181koa zen; 1926 urte hasieran beherakada nabarmen bat eman ondoren, martxoan 143an kokatu zen, baina urte amaieran 1925eko datuetara iritsiz; 1927an gorakada garrantzitsua eman eta urte amaieran 245ean kokatu zen (1. Grafika). 1927ra arte behintzat balioen hazkunde hau ekonomia errealean oinarritu zen hein handi batean, baina urte hori erabakigarria bilakatu zen etorkizunera begira.



Iturria: Galbraith (2009: 22-23)

1925ean Britainia Handiko gobernuak, Winston Churchill ogasun ministro izanda, urre patroia berrezartzea erabaki zuen. Aldaketa honek Ingalaterrarekiko merkataritza harremanak zailtzen zituen, merkataritzan aritzeko beharrezkoa baitzen libera hori erabiltzea, zeinak guda aurretiko inflazioa pairatzen zuen oraindik. Ondorioz, urte horietan Europa eta Ingalaterratik urre kopuru handiak atera ziren Estatu Batuetako merkatu oparorantz. Egoera hau ikusita 1927an Ingalaterrako Bankuko gobernadorea zen Norman Montagu, Reichbank-eko gobernadorea zen Hjalmar Schacht eta Frantziako Bankuko komisarioa zen Charles Rist Estatu Batuetara joan ziren Erreserba Federalesko agintariekiko negoziatzera. Long Island-eko bilera hartan, ekonomialari hauen eskakizunak jarraituz eta europar ekonomia suspertzeko asmoz, diru zirkulazioa errazteko politikak onartu ziren. Erreserba Federalak interes-tasa %4tik %3,5era jaitsi zuen eta estatu bonuen kopuru handi bat erosi zuen, haiek saldu zituzten banku eta enpresei kapital injekzio handi bat emanaz. Hala ere, interes tasa honen jaitsiera ez zen soilik europar merkatuen onurarako egin. 1927ko martxo eta azaro bitartean estatubatuar produkzio industrialak %10eko jaitsiera bat jasan zuen, horregatik Erreserba Federalesko buruek politika hau onartu zuten. Interes tasen jaitsierak bankuek eskaintako maileguen areagotzea ekarri zuen, susperraldia bultzatuz baina etorkizuneko finantza krisirako sustraiak sortuz.

1928. urtea nahiko oparoa izan zen orokorrean. Negu gogor bat igaro ostean, urte hasieratik akzioen prezioen igoera nabarmen bat ematen hasi zen. Hazkunde hori ordea kontroletik kanpo zegoela zirudien. Gorakada izugarriak izan ostean, bat-bateko

beheraldiak izaten zituen, ondoren are gorago igotzeko. Udara hasieran burtsako baloreen prezioen beherakada nabarmen bat gertatu zen. Hala ere ekainaren 12an akzioen salmenta errekorra eman zen 5 milioi akzioen trukearekin, eta hortik urte amaiera arte burtsa balioek gora egin zuten etengabe.

Orokorrean 1928 espekulazioaren urtea kontsideratzen da. Urte honetan ugaltu ziren bereziki espekulazio tresna eraginkorrenak, nahiko antzekoak zirenak, nahiz eta denbora epe oso desberdinetan mugitu. Batetik fidantza bidezko epe luzeko operazioak zeuden, zeinaren bitartez erosleak salmenta operazio baten eta haren ustezko etekinekiko jabetza eskubidea erosten zuen, horretarako fidantza bat ipiniz. Bestetik *call loans* delakoak zeuden, egun bateko operazioak, zeinen bitartez espekulatuak akzio bat eros zezakeen soilik prezioaren %10a ordainduta. Urte honetan, operazio hauek burutzea ahalbidetzen zuten agenteei emandako maileguen kopurua, espekulazioaren adierazle sutsua dena, izugarri hazi zen, baita hurrengo urtean ere. Mailegatutako dolar kopuruaren joera argia zen: 1927ko martxoan 4.430 milioi dolar ziren, 1928ko abenduan 6.440 milioi, eta, urte bat beranduago, 1929ko abenduan, kraxaren ondorioak pairatzen ziren bitartean, 8.525 milioi (Kindleberger, 1985: 35). Gainera, mailegu hauen interesak, urtean zehar %5ean mantendu zirenak, urte amaierarako %12ra igo ziren, etekin handiak lortzeko aukera sortuz. Honen aurrean estatu eta mundu osoko kapital etorrera masibo bat eman zen, denek mailegatu nahi baitzuten dirua %12an. Baita enpresa handiak ere, zeinak euren sektoreko jarduerak baztertzeko hasi ziren eta kapitala maileguetan inbertitu zuten, honela etekin askoz handiagoak eta azkarragoak lortzeko.

Urte amaierako hauteskundeetan errepublikarrak oparotasunaren sustatzaile bezala azaldu zuten euren burua eta demokratik ordea atzeraldiaren sinbolo bezala irudikatu zituzten. Amerikarrek merkatuan konfiantza ipini zuten eta urte amaieran Herbert Hoover errepublikarra hautatu zuten presidente. Aurreko presidente Calvin Coolidge-en ustezko jarraitzailea zen Hoover, baina bien ideien artean alde handia zegoen. Coolidge liberalismoaren defendatzaile sutsua zen, bere agintaldian burtsaren espekulazioa bultzatu zuena eta hura kontrolpean edukitzeko inongo erabakirik hartu ez zuena. Hoover-ek ordea, bere memorietan onartzen du 1925 urteaz geroztik burtsarekiko mesfidantza handia izan zuela. Merkataritza idazkari moduan jardun zuen Coolidge-en administrazioan, eta hasieratik egin zituen saiakerak merkatuarekiko kontrol handiagoa ezartzeko, baina Coolidge eta Erreserba Federaleko buruek oztopatu egin zituzten bere ahaleginak. Hala ere, harriztekoa den arren, Hoover presidentek, izendatua izan zenean, ez zuen merkatuan eskurik hartu, ziurrenik etsai gehiegi sortuko

zituelako beldurrez. Besterik gabe burtsaren gaineko gainbegiratze bat ezarri zuen, burtsaren buruei txostenak eskatuz.

Hainbat historialari eta ekonomialariren esanetan, Erreserba Federalak 1927an eginiko interes-tasa beherapena izan zen krisiaren errudun nagusia. Ikuspegi hori dutenen artean aipagarriena *London School of Economics*-eko Lionel Robins ekonomialaria dugu, zeinaren arabera 1927ondoren egoera kontrolpetik kanpo geratu zen (Galbraith,2009: 25). Baina teoria horrek hutsuneak ditu, aldez aurretik onartzen baitu diru mailegu merkeek espekulazioa dakartela. Gainera, Erreserba Federalak arazoa kontrolatzeko duen mekanismo falta salatzen du, baina praktikan Erreserba Federaleko buruek ez zuten joera hedakor hori oztopatu nahi izan.

2.3) ESPEKULAZIOAREN BULTZATZAILEAK ETA ERANTZULEAK

1928ko neguaz geroztik, inongo kausa zehatzik egon gabe burtsaren igoera izugarriak eman ziren. Aldi hartan beherakadak ere eman ziren, baina beti amaitzen zen gorakada nabarmen bat ematen. Uste izan da mugimendu gorakor hauen atzean enpresa gizon handiak aurkitzen zirela, zeinak gutxi gorabehera martxotik bat egin zuten merkatuaren goranzko joera bultzatzeko. Honen adibide nagusia John J. Raskob izango litzateke, General Motors-eko zuzendarietako bat, Du Pont familiatik oso gertu zegoena¹. Raskob Demokraten Batzar Nazionaleko zuzendari izendatu zuten 1928an. Martxoan, Europarantz zihoala, urte hartako produkzio aurreikuspenez hitz egin zuen eta automobil sektorearen oparotasuna aldarrikatu zuen, baita bertan General Motors-ek izango zuen garrantzia ere. Bere hitzek merkatua suspertu zuten, eta urte hartan General Motors-en balore industrialak gora egin zuen.

Krisiak eztanda egin aurretik batzuek aurreikusi zuten gertatuko zena, nahiz eta ez zuten geldiarazi. 1928. urtean zehar Erreserba Federaleko buruek antzeman zuten egoera kontroletik kanpo geratzen ari zitzaizela. Euren mekanismoak erabili zituzten *boom* espekulatiboa geldiarazteko, oso eraginkorrak izan ez zirenak. Urtean zehar zor publikoaren salmenta bultzatu zuten burtsa akzioen erosketa geldiarazteko eta merkatutik kapitala ateratzeko asmoz. Erabaki eraginkorra izan zen hein batean, urte hartan merkatuan beherakada nabariak gertatu zirelako, baina urte amaierarako bonoen

¹Du Pont kimikagintza sektoreko multinazional amerikar bat da, XIX. mendean sortua. 1914ean Pierre S. Du Pont-ek General Motors enpresako akzio ugari erosi zituen, eta 1920ean presidente izendatu zuten (Galbraith, 2009: 28).

salmenta eten egin zen. Batetik Erreserba Federalak saltzeko bono gehiagorik ez zuelako (bonutan 600milioi dolarretik 200milioi izatera pasa zen), eta bestetik uste izan zelako espekulazioa geldiarazi zela. New Yorkeko Erreserba Federaleko Bankuak 1929ko otsailean interes-tasen igoera aldarrikatu zuen maileguak oztopatzeko, baina Erreserba Federaleko buruek ez zuten jaramonik egin abuztura arte, argudiatuz erosle ertaina kaltetuko zela eta ez espekulatzaille handia.

Espekulazioaren gaineko kontrol txikia Erreserba Federalaren errua izan zen hein handi batean. Hala ere, haren defentsan esan beharra dago krisi aurreko uneetan Estatu Batuetan mailegatzen zen diruaren erdia baino gehiago korporazio handien eskuetatik ateratzen zela. 1929 urtean Standar Oil Company-k eguneko 69 milioi dolar eta Electric Bond and Share-k eguneko 100 milioi dolar injektatu zituzten *call loan* delako merkatuan (Galbraith, 2009: 47). Hala ere, Erreserba Federaleko buruek erru handia izan zuten gertatutakoan, arazoa gelditzea baino nahiago izan zutelako euren esku-hartze eza justifikatzea. Egoeraren larritasunaren aurrean erabaki sakonagoak hartu zitzaizketen, besteak beste Kongresuari botere espezialak eskatu epe luzeko operazioak gelditzeko edo agenteek eskaturiko fidantzak erregulatzeko. Erreserba Federalaren buruek euren erabakia justifikatu zuten argudiatuz espekulazioa burutu zuen kapitala ez zegoela Erreserbaren kontrolpean, eta hortaz esku hartzeko modurik ez zeukala.

Nahiz eta Erreserba Federalaren jarrera desagokia izan, eta hein handi batean espekulazioa onartu eta are bultzatu zuen, ez ziren izan bertako kideak espekulazioa burutu zutenak. Espekulazio basatia esku pribatuek burutu zuten, bereziki dirudunek eta enpresari handiek, noski. Kontuan hartu behar dira gorago aipatu ditugun datuak, non kreditu bidezko espekulatzaille kopurua milioi batetik behera kokatu baitugun. Milioi horren barnean nekazari edo langileren bat egongo zen ziurrenik maileguen bitartez akzioak erosiko zituztenak. Espekulatzaille masa horren gehiengoa enpresa gizon, banketxe edota kanpotar aberatsak izan ziren, merkataritza jarduera konplexuetan aritzeko ezagutza minimoa eta baliabideak zituztenak. Haien burutu zuten, bereziki New Yorkeko bankari aberatsenek, espekulazio sukarraren areagotzea. Charles Mitchell, National City Bank-eko burua, edo Thomas Lamont, J.P. Morgan-eko bazkide zaharrena izan ziren, besteak beste, espekulatzaille handienetakoak. Euren egoera ekonomiko pribilegiadunak eta gobernuan zein enpresarien artean zuten influentzia erabili zuten irabazi izugarriak lortzeko eta estatuaren burtsarekiko kontrol eza mantentzeko. Espekulatzaille hauen gehiengoa Wall Street-eko familia zaharretako

kideak izan ohi ziren. Jada *boom* espekulatiboa hasi aurretik burtsan jardun ohi zuten, funtsean haien arteko merkatu itxi bat zelarik.

Ezin dugu ahaztu urte hauetan burtsa manipulazioak ere gertatu zirela. Honela, burtsa espekulatzailerik boteretsuek bat egiten zuten enpresa bateko akzioak etengabe erosteko, haren prezioak igoaraziz (inbertsio gizon hauek eginiko erosketak ikustean jendeak enpresa horietako akzioak erosten zituen, honela prezioa artifizialki igoaraziz). Ondoren akzio horiek bat-batean saltzen zituzten berezkoa baino prezio dezente altuagoan, etekin handiak lortuz. Espekulatzailerik hauen artean aipagarri dugu Joseph Kennedy, 1960ean Estatu Batuetako presidentea izango zenaren aita. 1934ko Senatuaren ikerketak hainbat iruzur aurkitu zituen Wall Street-en. J.P. Morgan bankuan, akzioak saltzeko lehentasunezko zerrenda bat aurkitu zuten, non enpresari eta bankari ugari izenak agertzen ziren, baita hainbat politikari ere, eta haien artean presidentea ohirua bat.

Gaur egun gertatzen den moduan, enpresari, bankari eta politikarien arteko harremanak oso ohikoak ziren garai hartan, askok sektore pribatua eta politikan jarduten zutelarik aldi berean, edo enpresa munduan hasi eta politikan amaitzen zutelarik. Hoover presidentek burtsaren inguruan kezka zituen, Wall Street-eko agintariei txosten bat eskatu zien. Thomas Lamont-ek gutun batean Hoover presidentea lasaitu zuen, esanez merkatua bakarrik konpontzeko zela eta estatuaren esku-hartze beharrik ez zegoela. Etorkizuna oparua izango zela esanez amaitu zuen eskutitza, baina bost egun beranduago burtsak beheraldia hazi zuen (Film dokumentala, 2009).

Hala ere, bankari guztiak ez ziren espekulatzailerik anker batzuk izan. Egon ziren espekulazioaren arriskuei buruz ohartarazi zutenak. Haien artean Paul M. Warburg dugu, New Yorkeko *International Acceptance Bank*-eko burua eta Erreserba Federaleko sortzaileetako bat. 1929ko martxoan publikoki azaldu zen burtsaren hazkunde kontrol ezinaren inguruan hitz egiteko eta etorkizunean sortuko zen depresioaren mehatxuaz ohartarazteko. Ez zioten jaramonik egin, are oparotasunaren “etsai” moduan identifikatu zutelarik (Martín, 2010: 4).

3) 1929KO KRAXA ETA HAREN EPE LABURREKO ONDORIOAK

National Bureau of Economic Researches-en arabera, ekonomia estatistikak burutzen dituen erakunde pribatua, 1929koekainean Estatu Batuetako produkzio industrialak bere gorengo unea jo zuen, eta hortik aurrera beherakada fasean murgildu zen. Aurreko urteetatik sektore industrialaren egoera kaltetzen hasia zen, baina enpresa handiak burtsa merkatuan murgildurik zeudenez, etekin-galeren konpentsazio bat ematen zen. 1929ko martxotik antzematen hasia zen produkzioaren geldialdi bat, bereziki eraikuntza sektorean emandako baimenen gutxitzearekin. Honen arrazoi nagusiak, emigrazio prozesuen oztopatzeak sorturiko eskariaren beherakada eta burtsa merkatuak metaturiko kapital izugarria izan ziren. Aldi berean, automobil sektoreak ere bere gorena lortu zuen martxoan 622.000 autoren produkzioarekin. Orduetik haien produkzioa izugarri erori zen eskariaren beherakada nabari baten ondorioz, irailean 416.000 soilik produzitu zirelarik (Kindleberger, 1985:135-136). Sektore honen gainbeherak ordea berebiziko garrantzia izan zuen, beste hainbat sektore haren menpe baitzeuden. Ondorioz, urte hasieratik udara arte kautxu edo burdingintza sektoreen geldialdia ematen hasi zen. Orokorrean sektore industrialak *stock* beteko egoera batera iristen ari zen, aurreko urteetako produkzio basatiak sorturik.

1929an zehar burtsan ere gorabehera aipagarriak eman ziren. Martxo-apirilean beherakada nabarmena eman zen, akzioen truke errekorra eman zelarik 8 milioi akzioen salmentarekin. Honen arrazoa Erreserba Federaleko buruek eginiko adierazpena izan zen non espekulazioa kritikatzeko zuten, eta jarraitu ezker hartu beharreko neurriak adierazten ziren. Udara amaiera arte ordea, merkatuaren gorakada eman zen, beherakada puntual batzuekin. Nahiz eta sektore industrialak bere mugetara iritsi zen, orokorrean uda oparoa izan zen burtsa balioentzat. *New York Times*-eko balore industrialak 339tik 449ra pasa ziren maiatzetik abuztura². Uda amaiturik ordea, burtsak alderantzizko joera hartu zuen. Tradizionalki iraila hartu izan da 1920ko hamarkadako burtsa hazkundearen amaiera bezala (irailaren 3an balore industrialek gorena jo baitzuten). Hilabete hasieran gorengoa eman zenetik merkatuaren egoera egonezina bilakatu zen, igoera eta beherakada nabariekin, baina orokorrean beranzko korrante batean murgilduz.

² 1928 urte osoan zehar 86,5eko igoera jasan zuten burtsa balioek, baina soilik 1929ko udaran 110 puntu irabazi zituzten (Galbraith, 2009: 83)

Azkenean urriaren 24ean “Ostegun Beltza” delakoan, merkatuak eztanda egin zuen. Izua goiz partean hedatu zen bereziki. Salmenta operazio ugari burutu ziren, merkatuak %11ko beherakada jasaten zuen bitartean (akzio salmenten errekorra eman zen ia 13milioi akzioen trukearekin). Eguerdi aldera J.P. Morgan-en eraikinean New Yorkeko bankari boteretsuenak bildu ziren egonezin egoerarekin amaitzeko asmoz. Bertan National City Bank-ek burua Charles Mitchell, Chase National Bank-eko Albert H. Wiggin, J.P Morgan-eko burua Thomas Lamont edo New Yorkeko burtsako presidente ordea zen Richard Whitney bildu ziren besteak beste. 25milioi dolarreko funts bat onartu zuten, merkatua suspertzeko erabiliko zena. Whitney burtsara zuzendu zen eta enpresa esanguratsuetako akzio ugari erosi zituen merkatuak orduan ezartzen zuen prezioa baino dezente garestiago. Espero ziren emaitzak lortu ziren hein batean, egur horretako jaitsiera soilik 12 puntukoa izan zirelarik. Ostiral eta larunbateko saioetan merkatua tente mantendu zen, baina 1907an ez bezala, berreskurapen honek ez zuen luzaroan jarraitu³.

Astelehenean, azken urteetako joera gorakorra eten zelakoan hainbat inbertsio gizonen merkatutik ateratzea erabaki zuten, beheranzko korronea berpiztuz eta izua hedatuz. Charles Mitchell J. P. Morgan-en eraikinean sartzen ikusi zenean igoera minimo bat eman zen, baina orainoan ez zen bankarien aldetik salbazio saiakerarik egon. Egun horretan burtsa indizeek 49 puntuko jaitsiera pairatu zuten, akzioek %13ko balioa galdu zutelarik. Hurrengo eguna, urriaren 29a edo “astearte beltza” delakoa, New Yorkeko burtsako historiako egun latzena izan zen. Merkatuaren irekierarekin batera salmenta olatu izugarri bat eman zen, prezioak guztiz hautsi zituena. Egun ziren akzioak, prezio izugarri baxutan eskainita saldu ez zirenak eroslerik ez zegoelako (*air pockets*). 16,5 milioi akzio trukatu ziren egun hartan, eta balore industrialek 43 puntu galdu zituzten, balioaren %12a. Egun hartan zehar bankari boteretsuenak bi aldiz bildu ziren, baina berriz ere ez zen beherakada gelditzeko saiakerarik eman. Are gehiago, Wall Street-eko zurrumurruen arabera bankari taldea euren akzioak saltzen ari zen. (Galbraith, 2009: 119-133).

Hurrengo asteetan ezjakintasun egoera hedatu zen eta burtsak beherantz jarraitu zuen. Galera nabariak eman ziren arren, azkenean azaroan burtsaren beherakada eten egin zen, momentuz behintzat. *New York Times*-eko balore industrialak 224ean kokatu zen, irailean 449an zegoen bitartean. 1930. urtea ondo hasi zen burtsarentzat, are

³ 1907an burtsak eztanda egin zuen baina Morgan enpresari famatuak beherakada geldiaraztea lortu zuen kapital injekzio handi baten bitartez (Galbraith, 2009: 121)

gorakada txiki batekin, baina ekainean beste beheraldi bat hasi zen. Aurrerantzean, burtsa gainbehera korronte batean murgildu zen, 1933ra arte iraungo zuena.

Burtsaren erorketak hainbat ondorio negatibo sortu zituen Estatu Batuetako ekonomian. Akzioen balioen beherakadak sorturiko galera ekonomiko izugarriek kontsumoaren kontrakzio nabaria sortu zuten, jada nahiko egoera kaxkarrean zegoen produkzio industrialak kaltetuz. Aldi berean, bankuek emandako maileguak ordaintzeko arazoak sortu ziren enpresa eta partikularretan. Honek banka sistemaren porrota eragin zuen, aspalditik zetorren deflazioaren arazoa areagotuz. Faktore guzti hauek eta alde zurretik zeuden arazok Depresio Handia izeneko krisia sortu zuten.

Aipatu beharra dugu 1929ko Kraxaren inguruan sorturiko suizidioen mitoa. Tradizionalki pentsatu izan da urte horietan suizidioa izan zela biztanle ugariaren erantzuna sortu berri zen krisi egoeraren aurrean. Datuetara joaten bagara ordea, ikus dezakegu 1929ko eta bereziki Kraxaren osteko asteetako kopuruak ez zirela bereziki altuak izan: estatistiken arabera urrian, hots, Kraxa gertatu aurretik, AEBetan 1.331 pertsonak egin zuten beren buruaz beste; azaroan, hots, Kraxaren ondoren, 1.344 izan ziren (Galbraith, 2009: 152). New Yorken, Kraxak gogorren kolpatu zuen eremuan, beste zonaldeekin alderaturik suizidio kopuruaren handitze oso ahul bat eman zen. 1929 baino lehenagotik suizidio kopuruaren joerak gora egin zuten, urte horretan mantendu, eta hurrengoetan areagotu egin zelarik. Depresioaren eraginez, 1930, 1931 eta 1932 urteetan suizidioek gora egin zuten, egoera ekonomiko orokorra benetan hondaturik baitzegoen. Estatistikek diotenez, 1930ean, 100.000 biztanleko, 15,7 suizidatu ziren; 1931an 16,8; eta 1932an 17,4.


4) DEPRESIO HANDIAREN ERAGINAK ETA KRISIARI EMANDAKO IRTENBIDEAK

4.1) ATZERALDI EKONOMIKOA ETA HOOVER ADMINISTRAZIOA

1929ko urriaren 24ean burtsak eztanda egin zuen arren, hau ez zen krisiaren eragilea izan. Sektore industrialak eta zerbitzuek loraldi epe luze bat bizi zuten bitartean, nekazaritza sektorea gainbehera sakonean zegoen murgildurik hamarkada hasieratik. Lehen Mundu Gerran zehar luzaroan mantenduriko neutraltasunak

nekazaritza produktuen eskariaren areagotzea ekarri zuen, Estatu Batuak munduko hornitzaile bihurtuz. Ondorioz, eta urte horietan emandako mekanizazio prozesuarengatik, nekazaritza produkzioak igoera nabaria jasan zuen. Baina 20eko hamarkada hastean, 1920-1921 urteetako depresio laburrak eta guda amaierak sorturiko gainproduktio egoerak, nekazaritza produktuen prezioen beherakada nabaria ekarri zuen. Nekazariak, zeinak loraldi garaian lurrak eta makineria erosteko kredituak eskatu zituzten, zorpeturik ikusi zuten euren burua eta haien artean pobrezia ugaltzen hasi zen. Hamarkada osoan zehar produkzio maila altuek jarraitu zuten, nekazaritza produktuen prezioak oso baxu mantenduz eta nekazarien egoera hobekuntza oztopatuz.

1920ko hamarkada deflazionista kontsidera dezakegu nekazaritza sektorean. Korrante hau 1930eko hamarkadako Depresio Handian areagotu egin zen, fenomeno deflazionista ekonomiaren alor guztietara pasa zelako. Nekazaritza produktuen prezioak baxu mantendu ziren arren hamarkada osoan zehar, ezin ditugu ahaztu krisi honek sorturiko behar pertsonalak. Esan beharra dago nekazaritza eremuek hiri industrialek baino kalte gutxiago jasan zituztela elikagai hornidura falta pairatu ez zutelako. Hiri handietan, zeinak produkzio industrialean oinarritzen baitziren, 1933ra arteko garaian egoera larriak bizi izan ziren, baita ordutik aurrera ere.




2. Grafika: AEB-tako diru maileguak 1918-1940, bilioi dolarretan (Iturria: Pettinger, 2012)

Burtsaren gainbeherak sorturiko arazo larriena finantza krisi nazionala izan zen. Estatu Batuetako banka sistema deszentralizazioan oinarritzen zen, milaka banku txikiz osaturiko sare bat zelarik, Erreserba Federalak kontrolatuta⁴. Kraxaren osteko asteetan

⁴ 1927ko banka legeak sistema deszentralizatu bat sortu zuen non bankuek ezin zezaketen estatu batean baino gehiagotan jardun. Banku hauek kapital oso mugatua zuten.

soilik 40 bankuk egin zuten porrot (bereziki burtsa espekulazioan jardun zutenak), baina 1930 urte amaieran zehar banka sistemaren gainbehera etorri zen. Hainbat banku egoera oso larrian zeuden burtsan eta nekazaritza sektorean emandako maileguen ondorioz, zeinak ordaintzeko arazo larriak zeuden. Hegoalde eta mendebaldeko hainbat bankuren porrotak banka sistemarekiko mesfidantza piztu zuen, jendearen artean gordailuak ateratzeko premia sortu zelarik. Bankuak bata bestearen atzetik erortzen hasi ziren, krisia herrialde osotik hedatuz eta atzeraldi ekonomikoa areagotuz. Bankuen gainbehera hau errepikatu egingo zen hurrengo urteetan, 1931ean eta 1933an berriz gertatu zirelarik. Ordurako, 10.000 banku desagerturik zeuden Estatu Batuetan, 1929an zeudenen laurdena (Lanza eta Bilbao, 2009: 60-61). Bankuek euren maileguak eten behar izan zituzten, merkatuan zegoen diru kantitatea izugarri murriztuz eta deflazioaren arazoa areagotuz (2. Grafika). Erreserba Federalak interes tasak jaitsi zituen diru mugimendua errazteko asmoz, baina arazoa ez zen diruaren interes tasa, diru kopurua baizik. Depresioaren lehen urteetan Estatu Batuetako urre kopuruek gora egin zuten, baina ez ordea dolar kopuruak. Erreserba Federaletako buruek ez zuten moneta eskaintzaren handitzerik burutu, diru eskaintza maila oso baxuetan mantenduz. Finantza sektorearen beste arazo bat atzerriko kapitalaren ihesaldi masiboa izan zen, bat-bateko likidezia arazoak sortu zituen. Izan ere, kanpotar inbertsio gizonak, zeinak 1920ko hamarkadan zehar kapital kantitate handiak bideratu zituzten Estatu Batuetako ekonomiara, euren dirua aberriatzea erabaki zuten krisi egoeraren beldur.

Finantza krisi honek produkzio industrialaren guztizko hondamendia ekarri zuen. Enpresek, nahiz eta egoera onean egon, ezin zezaketen diru mailegurik lortu eta hortaz euren jarduerak oztopaturik ikusi zituzten. Ondorioz, produkzio industrialak, 1929ko ekainean bere gorengo puntura iritsi zena, etengabe erortzen hasi zen 1933ra arte. 1929 urte amaieran beherakada nabaria eman zen burtsa krisiaren ondorioz, baina bereziki urte hartan automobil sektoreak jasandako produkzio beherakadagatik (martxoan 600mila, abuztuan 440mila, urrian 319mila eta abenduan 92mila; 1932an automobil produkzioa 26 puntukoa zen, 1929=100) (Kindleberger, 1985: 142). Industria produkzio beherakada hau mailakatua izan zen, 1932an datu baxuenak eman zirelarik. Hala ere, beherakada hau produktuen araberako izan zen. Industria astuna delakoak (makineria, automobilgintza edo burdingintza) beherakada izugarria jasan zuen, 27,7ko kopuruetaraino (1929=100), baina kontsumo ondasunak ordea (elikadura edo ehungintza) soilik 76raino jaitsi ziren (Gazier, 1985: 13-17).



Iturria: Gazier (1985: 14-15)

Ekonomiaren gainbehera areagotu egin zen produkzio industrialia erdira murriztu zelako 1932rako. Maileguen etetearen ondorioz enpresek ezin izan zieten gastuei aurre egin, eta askok porrot egin zuten. Ehun mila bat enpresek itxi zuten urte haien artean, langabezia kopuruak izugarri haziz, bereziki zonalde industrialetan. Depresio Handia mundu mailako krisi bat bihurtu zen, %15eko langabezia tasa globalak sortu zirelarik. Nekazal jarduerak une hartan zuen pisua kontuan izanda, non ez den langabezia tasarik ematen, kopuru izugarri handiak ziren. Estatu Batuetan, tradizionalki lanpostu eskaintza handia izaten zuena, 11-12 milioi biztanle bilakatu ziren langabe 1933rako, %24,7ko kopuruetera iritsiz (Lanza eta Bilbao, 2009: 47)⁵. Lan merkatuan beherakada ez zen progresiboa izan, bat-batekoa baizik. Gainera, beherakada izugarri honen ostean ez zen inongo berreskurapenik eman luzaroan. Estatu Batuetan 1936ean oraindik %10eko langabezia tasak mantentzen ziren, 1920-1921eko atzeraldian emandako datu altuenen parekoak hain zuten. Enplegu beteko egoera ez zen Bigarren Mundu Gerrak sorturiko hazkunde garai arte emango.

Aipatu dugun bezala, produkzioaren erorketak langabezia datu izugarri altuak sortu zituen. Langabe hauek, inongo gizarte babesik jasotzen ez zutenak, ez zeukaten inolako eros ahalmenik, hortaz orokorrean herrialdeko kontsumoak behera egin zuen. Gainera, ezin ditugu ahaztu herrialde osotik hedaturiko finantza krisia eta Erreserba

⁵ Aipatu izan dira %30eko langabezia kopuruak baina ziurrenik horiek tasa lokalak edo sektore partikular batzuetakoak izango ziren, adibidez Chicago edo Detroit, industria astunean oinarritzen zirenak. Hala ere, garai honetako datuetan soilik lanpostua galdu duten langileak kontatzen dira, eta ez lan-merkatuan sartu berri diren gazteak edo emakumeak. Hortaz datuek sinesgarritasuna galtzen dute (Gazier, 1985: 30).

Federalak haren ondorioz harturiko erabakiak, diru kopuruaren handitzea eta haren mugimendua oztopatzen zituena. Faktore guzti hauek 20eko hamarkadatik zetorren korrante deflazionista areagotu egin zuten. Hala ere, prezioen beherakada hau, berriz ere sektoreen araberakoa izan zen. 1929-1932 artean txikizkako produktuen prezioak %18,6 erori ziren bitartean, handizkako produktuetan emandako beherakada %42koa izan zen (Gazier, 1985: 21-23).

1929 urte amaieran emandako beherakada, nahiz eta azkarra izan, bereziki inportazioetan zentratu zen. New Yorkeko merkatal gizonen bankuen bitartez jarduten zuten egunerokotasunean, hortaz krisi finantzarioak euren jarduera guztiz oztopatu zuten. Salgaien prezioen beherakada honek merkataritza sektorearen erorketa azkartu zuen. 1929ko iraila eta abendu bitartean 360milioietik 307ra erori ziren inportazioak (%15). Honek ordainketa-balantza esportazioen alde kokatu zuen, 100milioi dolarreko soberakinak sortuz 1930eko lehen hilabeteetan. Baina ez zuen luzaroan iraun, urte hartan esportazioen gainbehera eman baitzen, merkataritza internazionala izugarri kaltetuz (1929ko apirilean 3040milioi dolarreko balioa izan zuten merkatal harreman internazionalak, 1933ko otsailean ordea 944 milioikoa soilik; hortaz, balioaren %69a galdu zuten, nahiz eta soilik trukeen bolumenean %25eko beherakada eman) (Gazier, 1985: 25). Gainera, ezin ditugu baztertu krisiak bultzaturiko neurri protekzionisten ugaltzea, zeinak merkataritza internazionala are gehiago oztopatu zuten. Garai honetan muga-sarien igoera orokor bat eman zen, garrantzi berezia izan zuelarik 1930eko Estatu Batuetako Smoot-Hawley muga-sariak, nahiz eta munduko hainbat herrialdetan ere eman ziren (Italia, India, Kanada, etab.).

Historiak, eta hainbat pertsonaiek (Roosevelt berak 1932ko Etxe Zurirako kanpaina politikoan), gogor kritikatu izan dute Hoover presidentea krisia gailentzeko inongo neurririk hartu ez izanagatik. Tradizio klasikoaren jarraitzaile izanik, merkatu askearen ideia defendatzen zuten, non estatuak ekonomian esku hartu beharrik ez zuten bakarrik berregituratuko zelakoan. Garai honetan ordea ezin zitekeen estatuaren eta ekonomiaren arteko independentzia defendatu biztanle asko oso kalteturik baitzeuden. Hortaz, 1929ko azaroan presidentea sektore guztietako ordezkariekin bildu zen ekonomiaren egoeraren inguruan eztabaidatzeko. Bilerak prentsa-aurreko publiko batekin amaitu ohi ziren, non alde guztiak berreskurapenaren gertutasuna aldarrikatzen zuten. Bilera horiek ordea ez zuten izan inolako garrantzirik, antzerki hutsa izan ziren (ekonomiaren alde zerbait egiten ari zenaren irudia eman nahi zen publikoki). Gainera, presidentek zerga jaitsiera bat aldarrikatu zuten, honela kontsumoa sustatuko zelakoan.

Zerga beherapen hau burutu zuen arren, funtsean ez zuen aldaketarik suposatu, zergak jada oso baxu zeudelako. Bi erabaki hauek, praktikan inongo baliorik izan ez zutenak, errepublikarren *laissez-faire* ideiaaren adierazle esanguratsuenak izan ziren.

Hala ere, esan beharra dago Hoover ez zela Coolidgebezain kontserbadorea, hainbat erabaki hartu baitzituen ekonomiaren beheraldia oztopatzeko, haien artean estatu interbentzionismoa bultzatzea. Lehenik eta behin, alde aurretik aipaturiko Smoot-Hawley muga saria ezarpena dugu, zeinak merkataritza internazionalera begira politika protekzionista bat ezartzen zuen. Praktikan kaltegarria bihurtu zen, atzerriko herrialdeek urrez ordaindu ezin zezaketenean merkantzien bidez egin baitzuten, protekzionismoak defendaturiko produkzio nazionala kaltetuz. Nekazaritza sektorea laguntzeko asmoarekin, *Federal Farm Board* erakundea sortu zuen 1929an. Haren helburua nekazariei prezioen gaineko nolabaiteko boterea ematea eta nekazal produktuen salmenten areagotzea ziren. Horretarako produkzioaren zati baten gordetzea emango zen prezioen gorakada bultzatzeko. Gainera, estatuak maileguen bitartez nekazal kooperatibak bultzatu zituen, bereziki kotoi sektorean. Erakunde honen eraginak ez ziren oso handiak izan antolakuntza izugarria eskatzen zuelako (Galbraith, 1989: 225).

Banka eta finantza sektorearen berreskurapenerako, 1931ean Hoover bankari boteretsuenekin bildu zen 500 milioi dolarreko funts bat sor zezaten erakunde ahulenak babesteko. *National Credit Association* delakoa sortu zuten, baina aste gutxiren ostean bertan behera gelditu zen. Haren ondorengo moduan 1932an *Reconstruction Finance Corporation* (RFC) erakundea sortu zen, oraingoan estatu funtsak baliatuz. Haren bitartez larrialdi egoeran zeuden banku, enpresa edo nekazal korporazioak ekonomikoki lagunduko ziren. Etorkizunera begira garrantzi izugarria izan zuen, izan ere bankuen erreskaterako erakunde bat sortu zenez, zergatik ezingo zen langabeen laguntzarako erakunde bat sortu? (Kennedy, 2005: 116).

1932an ordea Hoover-en kargua amaitu egin zen. Depresio Handiak gogor kolpatu zuen estatu batuarrek harekiko zuten konfiantza. Izan ere, presidentek krisitik ateratzeko harturiko neurriek ez zuten eragin handirik izan eta biztanle ugari miseria egoeran biz ziren. 1932ko hauteskundeetan Franklin Roosevelt demokrata izan zen aukeratua presidente, 1933ko martxoan kargua hartu zuelarik.

4.2) LEHEN NEW DEAL PLANA (1933-1934)

Kargura igo zen une beretik hasi zen Roosevelt krisiaren aurkako neurriak hartzen, non Hoover-en adibidea jarraituz estatu interbentzioa aplikatu zuen ekonomia alorrean. *Brain Trust* izeneko intelektual taldea sortu zuen neurri hauen inguruan aholkatu ziezaioten. Ekonomialari eta abokatu osaturiko talde honen ideien oinarria ekonomiako sektoreen arteko oreka mantentzea zen, bereziki nekazaritza eta industriaren arteko balantza. Talde honen babesarekin Roosevelt-ek krisi ekonomikotik ateratzeko larrialdi neurriak hartu zituen. Erreforma hauen gehiengoa “Ehun Egunka” izeneko epealdian burutu ziren bereziki, 1933ko martxoaren 4tik ekainaren 16ra zihoana.

Roosevelt-en lehen erabakia banka sektorera bideratu zen. Martxoaren 5ean Kongresuan Larrialdiko Banka Legea proposatu zuen. Izan ere, 1933an, kargua hartu baino hilabete batzuk lehenago, finantza krisi berri bat piztu zen, oraingoan Michigan-en. Berriz ere, jendea euren aurrezkiak bankuetatik ateratzen hasi zen, beldurra herrialde osoan hedatzen zen bitartean. Bankuak bata besteari atzetik erortzen hasi zirenean presidenteak Etsaiarekiko Merkatal Legea erabili zuen. Haren bitartez presidenteak banka sistema itxi zuen lau egunetako boterea eskuratu zuen. Hoover eta Roosevelt-en administrazioek bat egin zuten banka lege berria aurrera ateratzeko eta martxoaren 5a eta 9a artean legea sortu zuten. Lege honek hainbat aldaketa ezartzen zituen banka sisteman, zeina aurrerantzean gobernuaren kontrol zorrotz baten menpe egongo zen: batetik, aipatu berri dugun bezala, presidenteak errepublikanoen hegemonia lortzen zuen; Erreserba Federalak jaulki zezakeen txanpon kopurua handitu zuen; RFC erakundeak bankuetako akzioekiko preferentzia lortzen zuen. Gainera, gobernuak kapital injekzio handi bat egin zuen finantzen hobekuntza bat eman zedin. Azkenean martxoaren 13an bankuak berriz ere ireki egin ziren. Aurreko egunetan presidenteak egindako deklarazioei esker, non sistemaren egonkortasuna eta bankuetan aurrezkiak gordetzearen fidagarritasuna aldarrikatzen zuen, jendeak euren gordailuak depositatu zituen bankuetan, sistema berpiztuz.

Lege hau onartu eta hurrengo egunetan, martxoaren 10ean, Kongresuari aurrekontu federaletan 500 milioi dolarreko murrizketak egiteko boterea eskatu zion. Murrizketa hori bereziki guda beteranoei emandako ordainketak %50a jaitsita egingo zuen. Roosevelt-ek bazekien bere aurrekariak sektore honekin izandako arazoak baina

hala ere aurrera jarraitu zuen (Kennedy, 2010:175). Martxoaren 20ean legearen bozketa burutu zen eta demokraten taldean disidente ugari egon ziren arren, kontserbadoreen laguntzarekin aurrera atera zen. Lege honek gizarteko hainbat sektore aurka jarriko zituela jakinda, martxoaren 22an ospe handia emango zion berrikuntza bat proposatu zuen, garagardoa eta ardoa legalizatzeko legearen onarpena. Lege hau Lege Lehorrarekin amaitzeko aurrerapausoa izan zen, urte hartako abenduan burutu zena.

Aldi berean, martxoaren 16an bere nekazal proiektua aurkeztu zuen. Haren helburua aspalditik kalteturik zeuden nekazarien egoera hobetzea zen, bereziki haien eros ahalmena handituz, honek industria eskariaren handitzea ekarriko zuelakoan. Haien sarrerak hobetzeko, aurreko hamarkadatik zetorren deflazioaren arazoa konpondu beharra zegoen, nekazal produktuen prezioak baxu mantentzen zituena. Roosevelt-ek proposaturikoaren arabera, nekazariak produkzioa jaitsi behar zuten eskaintza murriztuz eta prezioen gorakada emanez, eta trukean gobernuak ordaindu egingo zien. Horretarako *Agricultural Adjustment Administration* erakundea sortu zuen, nekazariari ordainketak eta maileguak ematen ziena. Gainera Nekazaritza Egituraketarako Legea onartu zuen zeinari esker baserriari hipotekak ordaintzeko laguntzak eman zitzaizkien⁶. Esan beharra dago nekazaritza sektorearen eztabaidan ideologia desberdin ugari aurkitzen zirela, eta presidentea guztien nahiak asetzen saiatu zela. Pisu nabaria izan zuen bereziki korrante inflazionistak, Roosevelt-en planekin bat etortzen zena.

Nekazaritza Egituraketarako Legeari Thomas emendakina ezarri zitzaion. Hari esker presidentek botere ugari lortu zituen inflazioa areagotzeko, bereziki dolarraren urre edukia murriztuz. Botere berezi honi, eta Etsaiarekiko Merkataritza Legeak emandako jurisdikzioari esker, apirilaren 19an Roosevelt-ek urre patriaren bazterketa aldarrikatu zuen. Behin urre sistemarekiko askatasuna lortuta, Roosevelt-ek dolarraren balioa murrizteko kanpaina abian jarri zuen, horretarako urre kopuru handiak erosiz. Urre sarrera masibo honek dolar kopuruaren areagotzea zekarren, eta ondorioz moneta zirkulazioa errazten zen. Gainera dolar horrek balio gutxiago zuenez, inflazio prozesu bat eman zen.

Bere ideiekin jarraituz, martxoaren 21ean langabeen laguntzarako proiektua proposatu zuen. Haren bitartez, gobernuak *Civilian Conservation Corps* (CCC) izeneko taldeak sortu zituen. Talde hauen bitartez gobernuak langabe gazteak jarduera publikoetarako bideratuko zituen⁷. Gainera, *Federal Emergency Relief Administration*

⁶ Une hartan hilabeteko 10 mila baserriren hipotekak exekutatzeko ari ziren (Kennedy, 2010: 178).

⁷ Talde hauek suebakiak, zubiak, bide berriak, museoak, etab. eraiki zituzten (Kennedy, 2010: 182)

(FERA) erakundea sortu zuen estatuei langabezia borrokatzeko diru laguntzak emateko. Diru laguntza hauek zuzenean edo lan proiektuak finantzatzeko erabili ziren, 1935ean 4,8 milioi biztanle laguntzen zirelarik, erdia baino gehiago dirua zuzenean emanda (Fearon, 1987: 241). Energia publikoaren inguruko ikuspuntu baikor bat zuen, horregatik bultzatu zuen Tennessee haraneko proiektuaren berrezartzea. Tennessee ibaian Wilson presidenteak presa bat eraiki zuen guda garaian, orain erabilpenik gabe zegoena. Roosevelt-ek haren berritzea eta proiektuaren zabalkundea bultzatu zituen. Martxoaren 18an *Tennessee Valley Authority* (TVA) erakundearen sorrera onartu zen, zeinaren betebeharrak energia hidroelektrikoa sortzea eta banatzea, energia produkzioa handitzeko eta uholdeak kontrolatzeko presa gehiago eraikitzea, haraneko hezkuntza eta osasun egoera hobetzea edo industria erakartzea ziren besteak beste.

Jarraian industria sektorera bideratu zuen bere begirada. Apirilaren 4ean bere aholkulari zen Raymond Moley-rekin batera ondorioztatu zuen sektore industrialia eta bere buruak ez zeudela prest birmoldaketa baterako. Bere ideiak zapuztuz ordea, apirilaren 6ean senatuak Alabamako Hugo Black senatariak proposaturiko “30 orduko proiektua” onartu zuen. Egitasmoa 6 milioi langaberentzat lanpostuak sortzea zen. Horretarako estatuen arteko merkataritza debekuak ezartzen zituen 30ordu/asteko lanaldiak betetzen ez zituzten enpresen produktuentzat. Nahiz eta Roosevelt-en helburuak betetzera zegoen bideratua eta berak momentuz inongo neurririk prestatu ez zuen, presidentea *Black* proiektuaren aurka azaldu zen. Batetik antikonstituzionala iruditzen zitzaiolako eta bestetik ez zuelako uste sektore guztietan aplikatu zitekeenik (nekazaritza industrialean esaterako zail izango zen), eta gainera arazoak sor zitzakeen (lanordu murrizketak soldaten jaitsiera ekarriko balu langileak kaltetuko lirateke; soldatak mantentzen baziren eta 6 milioi langile berri agertzen baziren, enpresen egoera ekonomiko ahulak kalteturik ikusiko ziren). Ondorioz Roosevelt-ek, berriz ere, aditu talde bat bildu zuen industria berreskurapenaren inguruan jorratzeko eta plan berri bat sortzeko. Apirilean zehar burutu zuten lege hori eta azkenean maiatzaren 17an Kongresura *National Industrial Recovery Act* (NIRA) proposamena bidali zen. Lege honek hiru oinarri zituen bereziki: batetik, *Black* proiektuan ezarritakoa jarraituz langileen soldata minimoa eta lanordu maximoa ezarri ziren, baita langileen biltzeko eskubidea ere; bestetik, *National Recovery Administration* (NRA) sortu zen industria produkzioa, soldatak eta salgaien prezio minimoak kontrolpean izateko. Hau gobernu, industria gizon eta langileen arteko akordioen bitartez lortu zen. Gainera, Roosevelt-en hitzetan, erakunde honek kompetentzia bidegabekeria eta gainprodukzio basatia

kontrolpean mantenduko zituen; azkenik *Public Works Administration* (PWA) erakundea sortu zen industria obra publiko handiak antolatzeko. Bi erakunde hauek batera jardun zuten sektore industrialaren berreskurapena aurrera eramateko, izan ere NRA-k harturiko neurriek ez zuten inongo eraginik izango PWA-k gastu handiko obra publikoen bitartez eros ahalmena handitzen ez bazuen (Kennedy, 2010: 191). Kongresuaren egutegiaren azken egunean, ekainaren 16ean, legea onartu zen.

Egun hartan amaitu zen “Ehun Egunak” izeneko aldi legegilea. Aldi horretan Roosevelt-ek 15 proposamen aldarrikatu zituen Kongresuan, guztiak lege bihurtu zirenak. Hala ere, neurri hauen eragina gai eztabaidagarria da. Harturiko erabakien gehiengoak susperraldi ekonomikoa zuen helburu, baina ez epe laburrera begira. Hortaz, urte haietan emandako hobekuntza ekonomikoak minimoak izan zirela kontsidera dezakegu. Izan ere, produkzio industrialaren berreskurapen partzial bat eman zen 1933an, baina hurrengo urterako jada etenik zegoen. Langabeziari begira, lehen aldiz haien laguntzarako neurriak eta erakundeak sortu ziren arren, praktikan langabe kopurua apenas murriztu zen bereziki sindikatuetakoa kideen artean eman zelarik kontratazioa (1933an 13,7 milioi langabe; 1934ean 12,4 milioi; 1935ean 12 milioi). Berdina gertatu zen langile sindikatuekin, oso afiliatze txikia jasan zutenak lehen urte hauetan. Hala ere, esan beharra dago Roosevelt-en helburuetako bat behintzat betetzen ari zela epe labur honetan. Izan ere, martxotik prezioen gorakada bat nabaritzen hasia zen, korrante inflazionista bati hasiera emanez (Kindleberger, 1985: 275).

4.3) BIGARREN *NEW DEAL* PLANA (1935-1938)

1935eko maiatzaren 17an Estatu Batuetako Gorte Gorenak *New Deal* planaren bitartez harturiko erabakiak konstituzioaren aurkakotzat jo zituen. Erabaki honek sortu zuen lehen eta bigarren *New Deal* arteko bereizketa, inflexio puntu bat sortu zuelarik. Lehen plana bereziki ekonomiaren alorrean zegoen zentratu, nekazaritza, banka eta industria legeak sortu zituelarik. Bazituen langabeen eta langileen aldeko neurriak, baina gizartearen egoeraren hobekuntzarako neurrien gehiengoa bigarren *New Deal*-ean eman ziren. 1936ko hauteskundeetan berriz ere Roosevelt garaile irten zenean, biztanleriak haren erabakiekiko zuen ikuspegi baikorra eta konfiantza frogatu zituen. Hau ikusita, aurrerantzean Gorte Gorena ez zen presidentearen erabakietan gehiago sartuko, askatasun politiko totala emanez Roosevelt-i.


Bere helburu politikoak libreki bete zitzakeelakoan, presidenteak gizarteren hobekuntzan zentratu zuen bigarren *New Deal* plana. FERA eta PWA agentziak mantendu ziren arren, langile berriak sortzeko zuten abiadura motelaren ondorioz 1935ean Roosevelt-ek *Works Progress Administration* (WPA) erakundea sortu zuen, bere lagun Harry Hopkins buru ipiniz. Nolabait, biztanleriaren laguntzarako beharrezkoa zen plana nazionalizatu egin zen, orain federazioa izango baitzen langabeak kontratatuko zituen obra publikoak gauzatzeko. Mota guztietako langileak erabili zituen bere lanetan, baita guztiz produktiboak kontsidera ezin daitekeen langileak, hala nola artistak. Bere lehen urtean milioi bat langile erabili zituen, eta iraun zituen zortzi urteetan 8 milioi (Kennedy, 2010: 307). Gainera, erakunde honen bitartez langile ez-kualifikatuek prestakuntza bat jaso zezaketen euren lan egoera hobetzeko (honek sindikatuekin arazoak sortu zituen presiorako boterea murrizten baitzien). WPA-k burutu beharreko lanek ezin zezaketen sektore pribatuarekiko kompetentziarik eragin, hortaz enpresek nahi ez zituzten proiektuetan zentratu zen, horrenbesteko etekinak sortzen ez zituztenak (Fearon, 1987: 246-247).

Baina aldi honetako neurriak aipagarriena 1935eko abuztuko *Social Security Act* dugu, zeinak lehen aldiz gizarte segurantza moduko bat ezartzen zuen Estatu Batuetan. Lege honen bitartez langabeen segurantza eta adinekoen pentsioak bermatzen ziren. Horretaz gain, gizarteko sektore ahulenak babesteko estatuak aurrekontu bereziak sortu zituen, 50 milioi adineko txiroentzat eta beste 25 menpekodun umeentzat. Langabeen ordainketak, 8 langile baino gehiago zituzten enpresariei ehuneko bateko zerga federala ezarriz egingo ziren. Adineko pentsioen ordainketa aldiz, langileei eta enpresariei kobraturiko zerga baten bitartez burutuko zen. Pentsio hauek kotizaturiko urteen eta soldaten araberakoak ziren, hilabeteko 10dolarretik 85era zihoazelarik. Hala ere, lege honek bazituen mugak, hainbat talde sozial kontuan hartzen ez baitzituen. Premia larrienak zituzten nekazariak, etxeko neskameak edota etorkinak ordainketa hauetatik kanpo geratzen ziren pobreziatik ateratzeko baliabiderik gabe geratuz (Fearon, 1987: 251).

Gizarte hobekuntzekin jarraituz, 1935ko uztailean *National Labor Relations Act* (NLRA) izeneko legea onartu zen. *Wagner Act* bezala ezagutua New Yorkeko Wagner senatariak proposatu zuelako, 1935eko maiatzean Gorte Gorenak harturiko erabakien eta 1934ean emandako lan arazoen erantzuna izan zen. Epaimahai horrek NIRA erakundea bertan behera utzi zuen, eta ondorioz baita hark sorturiko sindikatu askatasuna. 1934ean enpresariek ez zituzten onartzen NIRA erakundeak sorturiko

sindikatuak eta langileen aurkako errepresioa burutu zuten (sindikatuetakoa kideen edo kexak aurkeztu zituzten langileen kaleratzeak). Horregatik, lan harremanak antolatzeko, Roosevelt-ek *National Labor Relations Board* erakundea sortu zuen. Haren bitartez langileen hainbat eskubide onartzen ziren, bereziki sindikatuetan antolatzeko askatasuna. Honek nolabaiteko boterea ematen zien langileei, adibidez soldaten igoerak exijitzeko edo lan baldintzak hobetzeko. Enpresariei sindikatu hauetan esku hartzea debekatu zitzaien, baita sindikatuko buruak presionatzea edota sindikatuko kideak kaleratzea. Neurri hauek Estatu Batuetako sindikalismoaren berpiztea ahalbidetu zuten, bereziki *American Federation of Labor*-en bitartez. Sindikatuetakoa afiliazioa oso motel hazi zen lehen urteetan (1933an ia 3 milioi; 1934ean 3,6 milioi; 1935ean 3,9 milioi), baina 1937an Gorte Gorenak NLRA konstituzional onartu zuenean bultzada nabaria jasan zuen (Kindleberger, 1985: 275). Hala ere, gizarte segurantzak bezalaxe, sindikatuen onarpena ez zen sektore guztietan berdin eman. Hainbat jardueretako langileek ez zuten sindikaltzeko aukerarik izan, besteak beste trenbide langileak, nekazariak, etxeko langileak, estatuarentzako lan egiten zutenak edota kontratistak.

New Deal plana aztertu ostean, hainbat ondorio atera ditzakegu harengandik. Batetik, nahiz eta batzuen alde gehiago egin zen, ezarritako sistema berriak gizarteko sektore gehienek alde jokatu zuen. Orokorrean, ekonomiaren eta gizartearen alderdi guztiak erregulatzen saiatu ziren faktoreen arteko oreka lortzeko. Hala ere, eta emandako eraldaketa guztien garrantzia onartuz, alde aurretik ezarritik zegoen sistema ez zuen apurtu. Kapitalismoaren oinarriak mantendu egin ziren eta ez zen aberastasunen bidezko banaketarik eman. Funtsean plan ekonomiko berriak sistema kapitalista tradizionala salbatu zuen.



4. Grafika: AEB-tako langabezia tasak 1910-1960 (Wikipedia: "Great Depression" artikulua)

Esan beharra dago planaren helburu nagusiak, berreskurapen ekonomikoa eta langabeziarekin amaitzea, ez zirela bete. Produktzioa maila oso baxuetan mantentzen zen eta langabezia tasek altu jarraitzen zuten (4. Grafika). Bigarren Mundu Gerran inplikatu beharrak *New Deal* planaren bazterketa suposatu zuen, baita ekonomiaren eraldaketa guda-ekonomia baterantz. Guda beharrek industriaren bultzada izugarria suposatu zuten, produkzio industrialaren susperraldia emanez. Honen bitartez eman zen *New Deal*-aren garaian lortu ezin izan zen langabeziaren desagertzea. Ekonomiaren susperraldia oztopatu zuen beste arazo bat inbertsio falta izan zen. Enpresariak presidentearikiko mesfidantza handia zuten, etorkizunean burutuko zituen aldaketei beldur baitziren eta hortaz inbertsioa eten zuten (soilik makinerian inbertitu zuten, langile kopurua murrizteko asmoarekin) (Freidel, 1969: 19). Saiatu zen arren, estatuak ezin izan zuen inbertsio falta hori konpentsatu.

Nahiz eta ekonomia ez zen berreskuratu, hura kontrolpean izateko hainbat neurri eta erakunde sortu ziren. Banka sistema edo burtsa merkatua erregulatu ziren, orain gobernuaren gainbegiratzea jasango zituztenak. Honek etorkizuneko krisialdiak edo atzeraldi ekonomikoak saihestu zituen, edo behintzat oztopatu (SEC erakundeak burtsa akzioen balioak eta informazioa kontrolatzen zituen; Glass-Steagall legeak banku komertzial eta kreditu bankuen arteko separazioa ezartzen zuen). Plan ekonomikoak sorturiko erakundeek hedatzeak botere federalaren areagotzea ekarri zuen, baita presidentearen eskumenak ere. Honek kritika nabariak eragin zituen Konstituzioak ezarritako botere banaketa kolokan jartzen baitzuen, Kongresua lehen *New Deal*-a debekatzera iristeraino.

Funtsean sistema kapitalista tradizionala mantendu zen arren, Estatu Batuetako historian paper garrantzitsua bete zuen plan honek. Lehen aldiz estatuaren ekonomiaren interbentzioa suposatu zuen, teoria ekonomiko klasikoekin apurtuz. Roosevelt eta bere *Brain Trust* taldea ekonomiaren aspektu guztien arteko oreka bat lortzen saiatu ziren, horretarako prezioen, produkzioaren edota soldaten kontrol zorrotza mantenduz.

Baina plan honek ezarritako berrikuntza berriena estatuaren gizarte arazoek inplikazioa izan zen. Nahiz eta berreskurapen ekonomia ez zen lortu eta langabezia tasa altuak mantendu ziren, langileen eta langabeen egoera nabari hobetu zen. Lehen aldiz langile sindikatuak ezartzeko askatasuna onartu zen, langileen boterea izugarri handituz. 65 urteko erretiratze adina ezarri zen, eta are garrantzitsuago, pentsio sistemaren ezarpena eman zen. Gainera, egoera larrian zeuden langabe, adineko eta umeen laguntzarako diru laguntza handiak ezarri zituen estatuak.

Orokorrean begiratuta, *New Deal* planaren eraginak positiboak kontsidera daitezke. Egia da aldez aurretik ezarritako helburu nagusiak bete ez zirela, eta horrek kalte handia eragin ziola Roosevelt presidenteak zuen irudiari, baina Estatu Batuetako historian aldi berri bati eman zion hasiera. Garai horretan estatuak biztanleekiko ardura hartu zuen eta enpresek kontrolaturiko sistema ekonomikoa zerbait kontrolatzea lortu zuen hein batean. Lehen aldiz miseria gorrian zegoen jendearekiko laguntza plan sistematiko bat ezarri zen estatu guztietatik hedatu zena. *New Deal* planak ideien, erakundeen eta jarduteko moduen iraultza bat suposatu zuen (Degler, 1986: 219).

5) ONDORIOAK

Amaitzeko, lanean zehar ikusitako aspektuen eta analisiaren ondorioak aterako ditugu. Gaiaren azterketa sakon bat egin ostean, burtsa espekulazioaren inguruko informazio mamitsua lortu dugu. Fenomeno horren sorrera ez zen bat-batekoa izan, eta bertan gizarteko sektore guztiak bildu ziren. Erreserba Federaleko buruek, nahiz eta parte hartu ez zuten, espekulazioa bultzatu eta babestu zuten interes tasen mugimenduen bitartez. Espekulazio pixka batek ekonomiari onura egingo ziolakoan, dolarra kontrolatzen duen erakunde hauen buruek nahiago izan zuten fenomeno ez oztopatu, berandu izan zen arte. Hortaz Erreserba Federaleko agintariak burtsa espekulazioaren eta ondorengo krisiaren erantzule kontsidera daitezke. Baina ez ziren erantzule bakarrak izan. Coolidge eta Hoover presidenteak, estatu buru bezala burtsaren inguruan izandako jarrera oso kritikagarria izan zen. Lehenak ez zuen esku-hartzearen beharra onartzen, ekonomia soilik konponduko zelakoan. Gainera, Coolidge presidentea burtsa espekulazioan murgildu zen pertsonalki. Hoover-ek ordea bazituen ekonomiaren interbentzioaren aldeko ideiak, baina presidente bihurtu zenean ez zituen aurrera eramanean.

Hala ere, espekulazioaren erantzule garbienak enpresa gizon eta bankariak izan ziren. Parte hartu zuten erosle gehienek bezala, enpresari eta bankari handiek dirutza handia egin zuten burtsak gora egiten zuen bitartean. Baina burtsak eztanda egin zuenean, zer gertatu zen? Aberats hauek euren akzioak saltzea erabakiko balute, euren estatus pribilegiadunak sorturiko abantailak erabiliz, bereziki merkatuaren inguruko informazioa aldez aurretik ezagutzeak, galerak ekiditeko aukera izango lukete (edo behintzat galera txikiagoak izatea aurretik saldu izanagatik). Baina gizon hauek euren akzioak mantentzea erabakiko balute, eta are euren dirutza erabiliz merkatua erortzean

akzioak oso merke erosiko balituzte, etorkizunera begira negozio aparta izango litzateke⁸. Akzioen prezioak baztertuz eta besterik gabe akzioaren jabegoa kontuan hartuta, enpresa gizon eta bankari hauek Estatu Batuetako korporazio handienetako jabe bilakatu ziren diru kopuru oso txiki baten truke. Behin krisi garai luzea pasata eta berreskurapenaren bidea hartzean, gizon hauek enpresa industrial eta finantzario boteretsuenen gaineko kontrola izango lukete, etorkizunera begira irabazi handiak sortuz.

Beste aspektu batean zentratuz, Depresio Handitik ateratzeko presidentetek baliaturiko neurriei buruz esan beharra dago lehen aldiz interbentzionismoa aplikatu zela. Jadanik desegin dugu Hoover presidentearen neurrien inguruko kritika faltsua, zeinari geldotasun jarrera bat atxikitzen zitzaion. Ikusi dugu kraxak eztanda egin bezain pronto hasi zela ekonomia kontrolatzeko neurriak hartzen. Hala ere, egia da neurri horiek nahiko eskas kontsidera daitezkeela eta euren eragina minimoa izan zela. Praktikan Roosevelt izan zen interbentzionismoa benetan aplikatu zuena. Ekonomiaren sektore guztiak berregituratzeko eta kontrolatzeko helburuarekin hainbat erakunde eta lege berri ezarri ziren. Estatuaren esku-hartzea eta gastu publikoa izugarri areagotu ziren krisiari irtenbidea emateko, botere federalaren handitzea eman zelarik. Roosevelt-en erabakiek krisitik irtetea lortu ez zuten arren, krisiak ez zuen luzaro iraun 1941ean AEB-k Bigarren Mundu Gerran sartu zirelako, produkzioa eta lanpostuak handituz. Lehen aldiz Estatu Batuetako historian langile sindikatuak, gizarte segurantzaren bat eta langabeen aldeko planak ezarri ziren, baita txiroen laguntzarako neurriak ere. Neurri hauek garrantzi nabaria izango dute etorkizunera begira, 1960ko hamarkadako ongizate estatuaren aitzindari kontsidera daitezkeelarik.

⁸Kontuan hartu behar dugu burtsan kaosa hedatu zen egunetan saldutako akzioek erosleren bat izan zutela. Hau da, "Astearte Beltza" egunean 16 milioi akzioaren salmenta ematea baino, harrigarriagoa da 16 milioi akzio horiek erosleren bat izatea. Erosle horien artean John D. Rockefeller enpresa gizon famatua eta bere semea aurki ditzakegu (Galbraith, 2009: 141).

6) BIBLIOGRAFIA

- DEGLER, N. (1986), *Historia de Estados Unidos. El desarrollo de una nación 1860-1985*, Ariel, Bartzelona.
- FEARON, P. (1987), *War, prosperity and depression: The U.S. economy 1917-1945*, Philip Allan, Oxford.
- FREIDEL, F. (1981), “A liberal viewpoint: The New Deal in historical perspective”, in Alonzo L. Hamby (Ed.), *New Deal Analysis & Interpretation*, Longman, New York, 11-27 orr.
- GALBRAITH, J. K. (1989), *Historia de la economía*, Ariel, Bartzelona.
- _____ (2009), *El crash de 1929*, Ariel, Bartzelona.
- GAZIER, B. (1985), *El crac del 29*, Oikos-Tau, Bartzelona.
- KENNEDY, D. M. (2005), *Entre el miedo y la libertad. Los EE.UU.: de la Gran Depresión al fin de la segunda guerra mundial (1929-1945)*, Edhasa, Bartzelona.
- KINDLEBERGER, C. P. (1985), *Historia económica mundial: la crisis económica 1929-1939*, Crítica, Bartzelona.
- LANZA GARCÍA, R. eta BILBAO, L. M. (2009), “Cuando todo falla. Anatomía de la Gran Depresión, 1929-1939”, *Cuadernos de Economía*, 32:88, 43-70 orr.
- MARTÍN ACEÑA, P. (2010), *¿Qué paso en 1929? El año que cambio el mundo*, Universidad de Alcalá, Madril.
- PETTINGER, T. (2012), “What caused the Wall Street Crash of 1929?”, in *Economics Help: helping to simplify economics* webgunea, 2016ko maiatzaren 8an ikusia: <http://www.economicshelp.org/blog/76/economics/wall-street-crash-1929>

Bestelako iturriak:

Film dokumentala (2009): *El gran crac de 1929*, Blakeway Productions, UK, 2016ko urtarrilaren 15ean ikusia: https://www.youtube.com/watch?v=YidJdK_OBNs .

Wikipedia: “Great Depression” artikulua, 2016ko martxoaren 12an ikusia.